



Errenteriatik Leskovac-era: memoria partekatuen zubia

Egoitz Sayar Puente

Leskovac-era ongi etorria (Egoitz Sayar)

Memoria historikoaren lanketa funtsezko ardatza da herritar kritiko eta konprometituen heziketan. Helburu nagusia ez da soilik banakako lekukotzak berreskuratzea, baizik eta ikasleengan iraganaren ulermen gertuko eta sakona sustatzea, etorkizun inklusiboago eta bidezkoago bat eraikitzeko oinarri gisa. Hala izanik, memoriaren inguruan lan egitea ezin da izen, data edo gertakizun ezagunenetara mugatu. Sentitzera gonbitea luzatu behar du; besteekin konektatzera, euren bizipen zein sufrimendua partekatzera eta aitortzera.

lazko azaroan, SENSEI izeneko Historia irakasleentzako nazioarteko topaketa batean parte hartzera gonbidatu ninduen Ikastolen Elkarteak. Serbiaren bihotzean ospatu zen, Leskovac izeneko herri ezezagun batean, niretzat behintzat. Ekitaldi horrek inklusibitatearen inguruan hausnartzeko gunea eskaintzen zuen batetik, esperientziak, metodologia eta hezkuntza-proiektuak partekatuaz, eta bestetik, Historia modu erakargarrian irakasteko haziak barreiatzea zuen helburu. Hasieratik

antzeman nuen aukera paregabea izango zela gure lana erakutsi ez ezik, sarri isilarazitako memoria kolektiboen artean ulermen zubiak eraikitzeko ere.

Azken urteotan Orereta Ikastolan lantzen dugun *Esadazu* proiektua aurkeztu behar nuen bertan, memoria historikoa erdigunean jartzen duena. Proiektuan ikasleek euren aitona-amonak elkarrizketatu behar dituzte, Euskal Herria astindu zuen Gerra Zibileko bizipen pertsonalak berreraikitzeko. Jasotako lekukotzak hainbat formatu originaletan islatzen dira: memoriak, egunerokoak, komikiak... Ikasle bakoitzak bere familiaren kontakizuna ezagutzen du, eta, nola ez, baita herriarena ere. Esperientzia aberatsa da oso: entzutearen pedagogia egiten du eta gazteak euren familien historiaren kronista bihurtzen ditu.

Proiektua, egiturari dagokionez, xumea bada ere, karga emozional eta hezitzaile handikoa da, izan ere, Historia hobekien ikasteko modua hura bizi izan zutenei arretaz entzutea da.



Bidaiaren prestaketa: Leskovac eta memoria oihartzunak

Serbiara abiatu aurretik, Leskovac-i buruzko bilaketa azkarra egin nuen, aurretik esan bezala, ordura arte, niretzat erabat ezezaguna baitzen herria. Lehen irakurketan jakin nuen hiriak NATOren bonbardaketa izugarria jasan zuela 1999an, Kosovoko gerraren garaian. Albiste hark berehalako konexio emozionala izan zuen nigan: Gernikak, euskaldunon bihotz urratuak ere, antzeko tragedia bat bizi izan zuen Kondor Legio alemaniarraren bonben menpe 1937an.

1999ko martxoaren 24an, NATOren "Allied Force" operazioan, Leskovac lehen helburuetako bat izan zen Jugoslaviako Errepublika Federalaren aurkako kanpainan. Garaiko txostenen arabera, bonbardaketak azpiegitura zibil eta industrialak sunsitziaz gain, biztanleria zibilari eragindako kalteak milaka hildakotan zenbatu ziren (Human Rights Watch, 2000). Gernikarekiko oihartzun emozionala berehalakoa izan zen: denboran eta espazioan bereizitako bi herri, baina airez eragindako zauriek markatuak.

Historiaren oihartzunak bi herrien arteko zubi ikusezin bat marratzen zuen bat-batean, milaka kilometrotara egonik ere, antzeko orbainak partekatzen zituzten eta.

Paralelismo horrek nire interesa piztu zuen: ez nindoa edonora memoria historikoaren inguruko proiektu bat aurkeztera, gerraren oinazea oraindik oso gertuko zuen hiri batera baizik. Leskovac-eko herritarrek, guk bezala Gernikan, Erreterian, Euskal Herri osoan, euren orimen kolektiboan oroitzapenaren zama eramango zutela imajinatzen nuen.

Leskovac: Serbiar "Manchester txikia"

Baina halabeharrak ezuste berri bat zuen niretzat. Leskovac-eko kaleetan zehar paseatzen, bertako Museo Nazionala bisitatzeko aukera izan nuen: altxor txiki horietako bat, tokiko historiaren arrastoak, Iustiniana Prima erromatar hiriaren aztarnak edota Balkanetako gerra dokumentuak, duintasun handiz zaintzen dituen.

Eta bertako gidak herriaren Historia pixkanaka aletzen zuela, poster horixka batek nire arreta erakarri zuen berehala, zirilikoz, baina ulertzeko moduan: Leskovac eta Manchester hitzak bata bestearen jarraian. Gehiago jakiteko asmoz,





gure gidarekin hitz egitera hurbildu nintzen gune batetik besterako isiltasuna aprobetxatuz, eta kontatu zidan Leskovac-i XIX. mende amaieratik XX. mende hasierara arte "Manchester txikia" deitzen ziotela, bertako jarduera industrial bizia zela eta, batez ere ehungintza sektorean. Hara!

XIX. mende amaieran, Leskovac Balkanetako ehungintza gune nagusietako bat bihurtu zen, antza, eskualdeko ekoizpen industrialaren lider. Ehungintza-industriaren hazkundera eta ekonomiaren dinamismoak Industria Iraultzaren ikur globala zen Manchester hiriarekin alderatzea ekarri zuen.

Momentu batez zur eta lur gelditu nintzen. XIX. mendean eta XX. mendean ere urte luzez, Erretereria funtsezko gune industrialak izan zen Gipuzkoan, ehungintza, metalurgia eta paper fabrikaz betetako eremua. Industrializazioak erabat eraldatu zuen jatorrizko nekazaritza nukleo txikia, Pasaiaiko portuarekiko hurbiltasunak eta trenbidearen hedapenak bultzatuta. Osatu zen paisaia industrialak, Erretererian "Euskal Herriko Manchester txikia" ezizena ekarri zion.

Bi hiri eta bi ibilbide bereizi, baina parekotasun harrigarri bat: biak industriaren beroan hazita-koak eta gerraren hondamendiak zigortuak.

Historiaren eta memoriaren parekotasunak

Leskovac-en zehar nenbilela ezin izan nion utzi parekotasun horien inguruan hausnartzeari. Bertan eta Erretererian, Historiak arrasto sakonak utzi ditu, hiri-paisaian ez ezik, baita jendearen nortasunean ere.

Industrializazioak garapena ekarri zuen, baina baita desberdintasun sozialak ere. Gerrak, tes-tinguru eta forma desberdinetan, hondamen- dia eta heriotza ekarri zituen. Eta bi kasuetan, ekaitzaren ostean, eraiki beharrekoa ez zen soilik materiala izan, memoriak ere hor zeuden.

Erretererian, Gerra Zibilak orbain sakonak utzi zituen: familia hautsiak, beldur jarauntsiak, frankismo garai luzean inposatutako isiluneak. Leskovac-en, Jugoslaviaren zatiketa eta 90eko hamarkadako gerra izan ziren gizartea triskatu zutenak. Belaunaldi bakoitzak aurrekoen arrakastak ez ezik, porrotak eta sendatu gabeko minak ere jasotzen ditu.

Horregatik, Orereta Ikastolan zinez uste dugu memoria historikoaren inguruan lan egitea ez dela funtsezkoa soilik, behar bat da. Ikasleei aitona-amonekin hitz egiteko eskatzen diegu- nean, entzun diezaietela, ez ditugu soilik anek- dotak bildu nahi. Etendako hari bat leheneratu nahi dugu, komunitate zentzudun bat josiko duena, beste behin.



Leskovac-eko Museo Nazionaleko afixa. (Egoitz Sayar).



Bi hiri, bi erresilientzia

Errenterian, azken hamarkadetako industria-berregituraketak aldatu egin du hiriko paisaia. Antzinako fabrikak gune kultural bihurtu dira, parke, auzo berri. Baina iraganeko langileen memoriak hor dirau: jendearen harrotasun eta lan egiteko gogoan, borrokalari sozialen ize-nak daramatzaten kaleetan, kultura herrikoian. Nortasuna ez da desagertzen fabrika bat ixten denean; itxuraldatzen da eta bizirauten du.

Nahiz eta Leskovac-ek oraindik ere erronka esanguratsuak izan aurretik, azken urteotan berroneratze urbanistiko eta kulturalari ekin dio, memoriatik abiatuta bere nortasuna berre-raikitzeari. Esan bezala, berreraikitzea ez da materiala bakarrik, sinbolikoa ere bada. Hondamendiaren ondoren duintasuna berreskuratzea da.

Bi herrietan, suntsiketaren historia ez da eta ezin da ezabatua izan: nortasun kolektiboan txertatua dago. Eta bietan, memoria etorkizuna zizelkatzeko tresna bihurtu da.

Memoriaren hezkuntzaren garrantzia

Gure proiektua SENSEI topaketan aurkeztea esperientzia hunkigarria izan zen. Orereta Ikastolan memoria historikoa bizipenetik lantzen dugun modua azaltzean, hitzek entzuleen artean oihartzun berezia zutela sentitu nuen. Serbiar, portuges, italiar, txekiar edota errumaniar irakasleek, guztiek partekatzen genuen, nolabait, gatazken eta zatiketaren oinordetza hurbila. Memoriak hitz egitea, nagusiei entzuteaz, kontakizun indibidualak justiziaren eta inklusioaren ekintza bihurtzeaz... Ez zen diskurtso huts bat, behar partekatua zen.

Memoria hezkuntzan integratzeak, azken batean, enpatia eraikitzea eta gizarte bidezkoagoa lortzeko lan egitea esan nahi du. Oroitzea ez da nostalgiazko ekintza, konpromisozkoa da. Memoria historikoa gelan lantzea ez da ariketa akademikoa, apustu etikoa da. Gazteei euren istorio pertsonalak zerbait handiagoaren parte direla irakasten die; mina, erresistentzia eta itxaropena ondare baliotsuak direla, aitortu eta gorde behar direnak.

Zubiak eraikitzea

Nire Leskovac-eko abenturak gogorarazi zidan Historia ez dela inoiz tokikoa edo isolatua. Gernikako zauriak Leskovac-ekoekin mintzo direla. 1937ko sirenen hotsa Euskal Herrian, Serbiako herritarren oroimenean entzuten dela oraindik, nolabait.

Etxera xede argiagorekin itzuli nintzen: gure ikasgeletan egiten dugun lanak, batzuetan hain txikia, hain arrunta, mugak gainditzen dituen oihartzuna du. Azken finean, memoria eraikitzea gizatasuna eraikitzea baita. Eta ikasleek egingo duten elkarrizketa bakoitzean, jasotako kontakizun bakoitzean, ahanzturatik salbatutako lekukotza bakoitzean, herriak, belau-naldiak eta itxaropenak batzen dituen zubi iku-sezin bat ehuntzen ari gara.

